

2. GAIA: EUROPAREN ERAIKUNTZA-PROZESUA

. Erkidegoko proiektuaren aurrekariak

II Mundu Gerra ondoren, Europan bi eredu ezberdin garatu ziren:

- Federalista, Europako Estatu Batuak lortu nahi zuena

. **Federalismoa:** Antolaketa politiko mota bat da, komunitate desberdinen errealitateak bateratzeko aliantzak egitean oinarritzen dena. Pluralitatea integratzeko era oso aproposa da, guztientzako onura eta onura indibiduala lortzea helburu duelarik. Ezaugarriarik garrantzitsuena hurrengoa da: Zatien autogobernua dago, zati guztiek gobernu komun baten menpe dauden bitartean. Hau da, Estatu unitario (bakarra, guztientzat berdina) baten deszentralizazioa egiten da. Adibidez, Estatu Batuak.

- *Etimologia: faedus (federatu) = aliantza, paktua*
- Funtzionalista, Europan eraikuntza-prozesua lortzeko bat-egite partzialen bidez lortu nahi zuena.

. **Funtzionalismoa:** Doktrina soziologiko eta antropologiko bat da, gizartea zatietan banatuta dagoela dioena. Zati horiek, banaka, guztien funtzionamendua mantentzeko eragileak direla defendatzen du. Horretarako, zati bakoitzak funtzio bat du, eta ondo betetzekotan oreka eta armonia lortuko da. Horregatik, zati bakar baten funtzionamendu txarrak besteen doikuntza eragiten du. Hau da, zati batek ez badu ondo funtzionatzen, besteak aldatu behar dira arazoa konpondu ahal izateko.

. **Testuingurua:** (II. Mundu Gerra ondoren)

- Garai hartako Estatu Europarrak oso ahulak ziren nazioartean. **II. Mundu Gerraren ondorioz krisi orokorra** pairatzen ari ziren, arlo ekonomiko, sozial, azpiegiturak... → Horregatik, haien helburua segurtasuna bermatzea zegoen. Egoera ez errepikatzeko.
- Biztanleriari bizitza maila on bat bermatzea arlo ekonomikoan. **Beste helburu bat, orokorrean biztanleria arlo ekonomikoan egoera txarrean zegoelako gerraren ondorioz.**

Egoera konpontzeko, Europak sistema federalista abiatu zuen → Europan arteko liskar gehiago ez egoteko.

. **Europan eraikuntza prozesua, definizioa:** *"Europako herrien artean batasun estua lortzeko helburua duten egitasmoen multzoa, azken helmuga Europako federazioa dela, edo zehatzago, europan Estatu federala"*

. **Pentsamendu paneuroparra:** Europako herrialdeen arteko kooperazioa sustatzen duen mugimendu politikoa da, arlo politiko, ekonomiko eta kulturalaren bateratzea defendatuz.

Aintzindariak:

- 1923 → Coudenhove Kalergi (Austria): *Paneuropa* liburua
- 1930 → Briand: "Europako Batasun Federalaren antolakuntza-sistemari buruzko memoranduma"

"Pienso que entre los pueblos que están geográficamente agrupados como los pueblos de Europa, debe existir una suerte de vínculo federal; estos pueblos deben en todo momento tener la posibilidad de entrar en contacto, de discutir sus intereses, de adoptar resoluciones comunes, de establecer entre ellos un lazo de solidaridad, que les permita, en los momentos que se estimen oportunos, hacer frente a las circunstancias graves, si es que estas surgen. (...) Evidentemente, la asociación tendrá efecto sobre todo en el dominio económico: esa es la cuestión que más presiona..." ← 1929

Iruzkindua [1]: Sacar ideas

. **Ondorioak:**

- Europar herrialdeen arteko baterakuntza federala
- Herrialdeen arteko komunikazioa → Ez erantzun armatuak
- Interes propioak eta interes komunak
- Arlo ekonomikoaren garrantzia → Testuinguruan, arazo nagusietako bat

Horrela, Europar Batasuneko ideia sortu zen.

. **Europako Kontseilua sortzea** → 1949an, Londreseko Tratatua bidez sortu zen, eta Strasburgon dauka xedea. Hainbat herrialdek hartu zuten parte: Belgikak, Danimarkak, Frantziak, Erresuma Batuak, Irlandak, Italiak, Luxenburgok, Norvegiak, Herbehereek, Suediak, Greziak, Turkiak, Islandiak eta Alemaniako Errepublika Federalak.

- Europako Kontseilua: Europako estatuen arteko ekimen bateratuak sustatzen dituen erakunde internazionala da. Horretarako, herrialdeen arteko lankidetzak eta metodo demokratikoak erabiltzea behartzen du.

. **Jean Monnet** → 1950an proposamena: Frantziak eta Alemaniak elkar harturik ekoiztu eta saldu zitzatela beren ikatz eta altzairu baliabideak, eta beste herrialdeek ere izan zezatela hitzarmen hartan parte hartzeko aukera.

. **SCHUMAN PLANA**

Bigarren Mundu Gerrak eragindako mina eta egoera kritikoaren ondorioz, Europan beste gerra bat ez errepikatzeko metodoak eta baliabideak martxan jarri ziren.

Alemania gerrako afektatuena izan zen, eta militarki okupatuta aurkitzen zen. Aliatuen armadek lurraldea kontrolatuta zuten, haien artean AEB, Britainia Handia eta Frantzia.

. **1950**an, Jean Monnetek bere proposamena Robert Schumani (Frantziako Kanpo Arazoen Ministroa) helarazi zion. Adierazpen edo plan honetan bake mundiala bermatuko duen Europa bateratu bat proposatzen da. Europako Batzordeak plan hau Europar Batasunaren jaiotzat hartzen du, Alemaniako eta Frantziako ikatz eta altzairuak administrazio bera eta bateratua izan zezaten proposatzen zuelako.

. **1951**an, urtebete geroago, IAEE (Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoa) osatu zuten hainbat herrialdek: Frantzia, Alemania, Italia, Belgika, Holanda eta Luxenburgok.

Eta era instituzionalean antolatu ziren:

- Goi Agintaritza sortu zuten (egungo Europako Batzordearen aurrekaria
- Parlamentarien Biltzarra (aholku-emailea),
- Ministro Batzordea
- Auzitegia

. **1952**an bide eta esperientzia horri jarraituz DEE (Defentsarako Europako Erkidegoa) delakoa sortu zuten herrialde horiek berek. Azken elkarte horrek, ordea, bi urte besterik ez zuen iraun, 1954an Frantziako Batzarrak ez baitzuen Ituna berretsi, Alemania berriz armatzen hasi izana auzi bihurturik

. EEeko sorrera eta garapen hasiera (1957-1969)

*** *Europako Ekonomia Erkidegoa***

. **Europako Ekonomia Erkidegoa** → 1957ko martxoaren 25ean sortu zen, Alemaniako Errepublika Federalak, Frantziak, Belgikak, Luxenburgok, Herbehereek eta Italiak sinatu zuten Erromako Itunaren ondorioz. Gero, Danimarka, Britainia Handia eta Irlanda gaineratu zitzaizkien 1973. urtean, Grezia 1981ean eta Espainia eta Portugal 1986an. Elkarteko estatuen arteko ekonomia harremanak sendotu eta elkarren laguntza teknikoa eta zientifikoa sustatzeko helburuaz jaio zen.

. Erromako Ituna → Sinadurak: (garrantzitsuenak)

- Paul-Henri Spaak
- Antonio Segni
- Konrad Adenauer

Erromako ituna Europako Batasuna eraikitzeke prozesuan aurrerapauso garrantzitsua izan zen; bertatik sortu zen Europako Ekonomia Erkidegoa, 1958ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zena.

. Helburuak:

- herrien arteko batasun estua sortzea,
- pertsonen zirkulazio askea,
- politika fiskal eta ekonomiko komuna

Horrela, Europako etorkizuna gobernatuko zuten hiru erakunde finkatu ziren.

- IAEE (Ikatz eta Altzairuaren Europako Elkartea)
- EURATOM (Energia Atomikorako Erakundea)
- EEE (Europako Ekonomia Erkidegoa) → **EEE sortzeko gurasoak: Monnet , Spaak, De Gasperi eta Schuman.**

. Erakunde-egitura haren osagaiak hauek ziren:

- Ministroen kontseilua
- Batzordea. Gobernuek
- Batzarra (Parlamentu gisakoa), Europako Legebiltzar bihurtu zen 1979. urtean
- Justizia Auzitegia
- Ekonomia eta Gizarte Batzordea.

. Arrakastak (1957-1969):

- Estatu kideen arteko muga zergak deuseztatu ziren
- Kanpo tarifa komuna ezarri zuten,
- Urteko batez besteko hazkundea 5,5ekoa izan zen,
- Nekazariko Politika Bateratua (1962)
 - Barruko prezio bateratuak
 - Soberakinei finantzamendua eta lehiakortasuna bermatzea
- Youndeko Hitzarmenak (1963) → iraganeko koloniek merkataritzea sustatzeko lankidetzaren itunak sinatu ziren, eta hiru komunitateen arteko **BATASUN INSTITUZIONALA** lortu zuten.
- Haga-ko goi bileran (1970), Britainia Handiari EEEen sartzen uztea erabaki zuten (Frantziak bi aldiz jarria zion betoa 1963an eta 1967an).

. Erromako Hitzarmenak bide bat (integrazio ekonomikoaren bidezko batasuna) proposatzen zuten, baina ez zuten bide hori nola jorratu behar zen zehazten.

. **1958an**, Frantziar, Charles De Gaulle izendatu zuten V Errepublikako presidentea eta hainbat ideia martxan jarri zituen:

- Ez zuten Frantziak subiranotasuna galtzea onartzen
- Ez zuten Europa federal baten eraikuntzan sinesten
- Zabalkuntzari ez (1961. urtean eta 1967an)

. **Gaullismoa** → Charles de Gaulleren doktrinatan oinarritutako ideologia nazionalista eta joera politikoa da. Gaullismoa funtsean kontserbatismoan oinarritzen da, Estatu zentralista baten aldekoa da eta Frantziak nazioartean paper garrantzitsua izateari

garrantzia ematen dio. Gaullistak orokorrean eskuindarrak eta nazionalistak dira eta, Europar Batasunaren aurrean, jokamolde anibalentea dute. Hala ere, gaullistak bi taldetan banatzen dira:

- Tradizionalistak (arlo sozial eta kulturalen)
- Modernistak (arlo tekniko eta ekonomikoan)

. Gaullismoak izan zituen ondorioak → 1965rako EEEren eta Frantziaren arteko desadostasunak onartezin bihurtu ziren, eta boto bidez (148. artikuluan oinarrituta) Frantziak 6 hilabeteetan ez izango zuela Batzordeko inolako bileratan parte hartu erabaki zuten. ← 1966ko urtarrilera arte.

. Aulki hutsaren krisia

Aulki hutsaren krisia EEEen garatu zen, *Nekazaritzakoko Politika Bateratua* (1962) krisia gertatzeko kausa izanik. Nekazaritzako Politika Bateratuaren helburua nekazal produktuen prezioen baterakuntza lortzea zen. Charles De Gaullek (Frantzia) plana ukatu zuen, politika aurrera eraman zuten. [Frantziaren subiranotasuna galtzeko beldur zen.](#)

Ministrioen Kontseiluak NPBk proposatzen zituen doikuntzak aurrera eramateko gariaren prezioa bateratzea onartu zuen. De Gaullek, Europar Batasun funtzionalistagoa ([eta ez federalista](#)) bilatzen zuenez, proposamenari ezetz esan zion. Hortaz, De Gaullek Ministroen Kontseilua burutu zenean, altxatu eta bere aulkia hutsik utzi zuen. 1965ko [ekainaren 30](#)etik aurrera Ministroen Kontseiluan parte hartzeari utzi zion, Luxemburgoko akordioa sinatu zen arte ([7 hilabete](#)).

. Luxemburgoko akordioa

Aulki hutsaren krisia konpontzeko Europar Batasuneko herrialdeen artean hainbat negoziazio egin ziren. Azkenean, konponbide bat aurkitu zuten, eta 1966ko ekainaren 30an Luxemburgoko akordioa sinatu zuten. → [Ez zuen balio legalik, adierazpen politiko bat izan zen.](#)

Akordio hau sinatu eta gero, Ministroen Kontseiluan beto eskubidea ezarri zen. Horrela, estatuek botere gehiago izango zuten europar instituzioen barne. Luxemburgoko akordioa Europar Batasunaren barneko gatazka lehenetarikoa izan zen, eta horren ondorioz, Europa bide funtzionalista jarraitzen hasi zen [federalista beharrean](#).

[Luxemburgoko akordioak gaur egun arte eragina izan du, beto eskubidea oraindik ezarrita dagoelako.](#)

. Lehenengo zailtasunak: 1969-1981

. **Werner Plana** → 1969ko Hagako Konferentzian onartua, 1971. urtean indarrean sartutakoa.

- Helburuak:
 - diru batasuna
 - politika ekonomikoen batasuna
 - 1980. urtean betetzeko
 - diru-erakunde bat sortzea
- Beste hartutako erabaki garrantzitsuak
 - Estatu berrientzako Erkidegoaren ondarea onartzea
 - Batzarra Parlamentua bihurtzea (1979. urterako)

1969an merkatu bateratua sortzeko batzorde bat sortu zen, Pierre Wernerek burutua. Urte bat geroago, Werner Plana gauzatu zen, baterakuntza monetarioa eta ekonomikoa 1980rako lortzea helburu zuena. Planak fluxu libreko kapitalen zirkulazioa ezartzea proposatzen zuen, horrela politika monetarioak bateratzeko. Plana 1971an onartu zen, baina ezin izan zen aurrera eraman, **1973eko krisia** dela eta.

. 1973eko krisiaren ondorioak:

- Desoreka monetarioak
- Urre patroiaren amaiera
- Baterakuntza prozesua alde batera uztea.

. Horren bitartean **Europar Moneta-Sugea** delakoa abian jarri zen, EEEko herrialdeen monetentzat fluktuazio banda bat.

Europar moneta sugea → Europako Ekonomia eta Diru Batasuna (UEM gazteleraz) ezartzeko lehenengo saiakera izan zen. Horren emaitza, Werner Planaren sorrera izan zen.

- Moneta sugearen oinarria: Moneta guztiek dolarrarekiko $\pm 2,25\%$ ko fluktuazio margina izan ahal zuten gehienez.

1973an petroleo krisia gertatu zen. Hortaz, gobernuek barne arazoak konpontzeaz arduratu ziren eta moneta sugearekiko interesa galdu zuten. Horrek protekzionismora eraman zituen herrialdeak, eta Werner planaz ahaztu ziren.

. **Europar batasunaren "Lehenengo zabalkundea"**: Britainia Handia, Danimarka eta Irlandako Errepublika, Europar Batasunean 1973ko urtarrilaren 1ean.

GOGORATU:

Europar Batasuna hainbat akordioen bidez sortu eta indartu da, eta hainbat zabalkunde izan ditu (hasieran 6 herrialde ziren, eta orain 28 dira). Bigarren Mundu

Gerra ondoren sortu zen, bereziki 1951an, *Shumanen adierazpena* eta *Erromako Itunen* ostean Europako Itatz eta Altzairuaren Erkidegoa sortu zenean.

1961an Irlandak, Danimarkak eta Erresuma Batuak Europar Batasunean sartzeko eskaera egin zuten. Baina Frantziako Charles de Gaullek Erresuma Batua sartzearen kontra botatu zuen, AEBk influentziatzen zituela esanez. Horrek hiru herrialdeekin negoziazioak geldiarazi zituen (1967an De Gaullek berriro ezetz esan zuen). De Gaullek kargua utzi zuenean (1969) negoziazioak berrireki ziren, eta 1973an hiru herrialdeak Europar Batasunean onartu zituzten.

[Noruega' rechazó 'la' adhesión' mediante'referéndum'\(1972\).](#)

. **1973ko egoera:** EEEri paralisia eragin zion, egoera kritikoa bilakatuz.

- Arrazoiak:

- Ikuspuntu desberdinak EBko herrialdeen artean:
 - Alde batetik EB merkataritza askeko gune soila izatea nahi zutenek (Britainia Handia)
 - Bestetik, batasun ekonomikoaz gainera, batasun estuagoa egin nahi zutenek.
- 1973ko petrolioaren lehen krisia
- Desoreka finantzarioak BH sartuaren ondorioz
- Aurrekontu arazoak, nekazaritzako gastu igoerak eraginda

- Ondorioak:

- Werner plana berrikusita izan zen → [Bertan behera utzi](#)
- 1973ko energia-krisiak Erkidegoko energia-politikaren aldaketa eragin zuen

. Ondorengo egoera:

- Europar herrialdeek izan zuten hazkunde ekonomiko ikaragarriari amaiera eman zion petroleoaren krisiaok.
- Desenplegua
- Inflazioa
- Krisi industrialak

[Hurrengo hamarkada baldintzatu zuen petroleoaren krisiak.](#)

- 1973ko egoera larri horri aurre egiteko estatu kideen elkartasunik eza izan zen jarrera nagusia
 - EEEko hiru Estatu eragileenetan aldaketa politikoak egin zirelako:
 - Schmidt Mendebaldeko Alemanian → Sozialdemokrata, keynesiarra
 - D'Staing Frantzian → Europa zalea

- Wilson Britainia Handikoa → Ez Europa zalea.

Nahiz eta petroleoaren krisiak hurrengo urteak baldintzatu zituen, hainbat aurrerakuntza egon ziren, zabalkundeak beste batzuen artean. Hauek izan ziren gertatera nabarmenenak:

. 1974ko azaroaren 9-10ean Parisko Goi-bilera egin zuten europako burukideek. Hau erabaki zen bestek beste:

- Europako Parlamenturako lehen hauteskundeak egitea (1979rako sufragio unibertsal zuzenez)
- Europako Kontseiluaren instituzionalizazioa (urtean hiru aldiz bildu behar zena). [Komunitatean eragiten zuten erabaki garrantzitsuenak hartzen zituzten.](#)

. 1975ko abenduaren 29an **Tidemans txostena** aurkeztu zen, hainbat ideia proposatu zituen:

- Benetako exekutibo komunitarioaren beharra
- Estatuek EEEri eskudunak ematea, eta gai batzuetan bere agindupean egotea
- Kanpo eta Defentsa politika komun bat ezartzea, Europako Politika Lankidetzaren bidez.

. 1979ko martxoan Europako Diru Sistema sartu zen indarrean, haren helburu nagusia europar dirua - ECU (European Currency Unit) ← [Euroaren aurrekaria](#) - sortzea zelarik. [Werner Planaren antzekoa izan zen, EBko herrialdeen moneten fluktuazio banda 2.5%koa izango zen → Horrela gobernuek haien moneta politikak koordinatuko zituzten.](#)

- 1979an ere Europar Parlamenturako lehenengo hauteskundeak egin ziren, **sufragio unibertsal** bidez.

. Europar eraikuntza-prozesurako bultzada berria.

*** Akta Bakarretik Maastrichteraino (1981-1993)**

. **EEEren hegoalderako zabalkundea:**

- 1981an Grezia sartu zen.
- 1984 urtean, Altiero Spinellik beste parlamentarioekin "Spinelli Txostena" martxan jartzea erabaki zuen. Horren helburua Erromako Itunak ordezkatzea zen, eta Europako Lankidetzaren politikoa eta Europako diru sistema sendotzea. Baina, gobernuek ez zuten onartu. [Hala ere, 1990ko hamarkadan egingo ziren aldaketak aurreikusitakoak zituen.](#)
- 1985an Schengeneko Akordioa sinatu zuten → Pertsonen zirkulazio librea eta herrialdeen arteko frontierak suntsitzea zuen helburu.
- 1985an Europar Batzordeko presidentea berria aukeratu zuten: Jacques Delors: [\(Sozialista frantsesa\)](#)
- 1986an Espainia eta Portugal EBra sartu ziren.

Hortik aurrera eman zen lehenengo pausua Akta Bakarra sortzea izan zen:

. **Akta bakarra** → 1986an onartu zen, eta 1987ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zen. EBko tratatuen lehenengo modifikazioa izan zen → 1951ko Pariseko Ituna (CECA) eta Erromako Itunak (EEE, EURATOM) ordezkatu zituen.

"El Acta Única es, en una frase, la obligación de realizar simultáneamente el gran mercado sin fronteras, más la cohesión económica y social, una política europea de investigación y tecnología, el reforzamiento del Sistema Monetario Europeo, el comienzo de un espacio social europeo y de acciones significativas en materia de medio ambiente". ← Jacques Delors

. **Akta bakarraren ezaugarriak:**

- Helburua: Mugarik gabeko espazioa sortzea (merkataritza, zerbitzu, diru eta pertsonen zirkulazio librea)
 - Kontrol demokratikoa estutzea eta Erkidegoaren gestio gaitasuna handitzea.
- Erreforma instituzionala:
 - Europar Kontseilua → Gehiengoko botoa ezarri zen.
 - Europako Parlamentua:
 - lankidetzako prozedura legegilea
 - Zabalkuntzako EParen irizpena beharrezkoa zen
 - Kontseilua → Gehiengoaren printzipioa
 - Batzordea:
 - Ekimen legegileak
 - Botere gehiago lortu zuen
 - Soilik aho batez EEko betoa jarrita

Akta bakarra 1987an ezarri zen, EEEn helburu berriak ezarri zituen, eta 1993rako barne merkatu bateratua lortzeko asmoa zuen, hau da, oztopo tekniko, fisiko edo fiskalik gabeko merkatua. Horrela, estatuen arteko froterekin amaitu nahi zuen. Akta bakarrak europaren eraikuntzan eragin oso handia izan zuen: EEEn boterea handitu zuen, baterakuntza ekonomiko eta sozialaren printzipioa sustatu zuen, eta lehen aldiz, kanpo politika bateratuak egitera bultzatu zituen herrialdeak.

. **EBen sorrera eta bere berrespenerako arazoak**

EEEren etorkizuna zela eta, areagotu egin zen federalisten eta konfederalisten arteko eztabaida. 1990eko apirilean, Berlingo harresia erori (1989) eta Alemania batu (1990eko urrian) ondoren.

Kohlek eta Mitterrandek lehen aldiz erabili zuten Europako Batasuna izena frantziarrek eta alemaniarrek elkarrekin egindako adierazpen batean:

- Ekonomia eta Diru Batasuna (UEM)
- Batasunaren Ituna (Maastricht-eko Ituna)

. **Maastricht-eko ituna** → Europako Batasuna sortu zuen ituna, 1991n burutua eta 1992an Europako Elkarreketako hamabi estatuek sinatua Maastricht-en. 1993an jarri zen indarrean. Erromako ituna (1957) eta Europako Akta Bakarra (1986) itunak aldatu eta osatu, Ekonomi eta Moneta-batasuna lortzeko epeak finkatu, kideen kanpo-politika eta segurtasun-politikarako oinarriak ezarri eta "europar hiritartasuna" sortu zuen itunak.

. Europako Ekonomia Erkidegoak hainbat erronkei egin behar zien aurre:

- Kanpokoak:
 - SESBren hondoratzea
 - Ekialdeko blokea desagitea → [Gerra Hotzean SESB-k zuzenduriko estatu sozialisten multzoa izan zen, Estatu Batuak eta Mendebaldeko Europak osaturiko Mendebaldeko Blokea arerio nagusia zuena. 1991an desagin zen, Varsoviako Itunaren bidez.](#)
 - Alemaniako batasuna → En [1990](#), cuando la Guerra Fría llegaba a su fin, [Alemania Oriental](#) recibió la bienvenida a la [Comunidad Europea](#) como parte de una [reunificada](#) Alemania. La caída del [Muro de Berlín](#), que posibilitó esta reunificación y que tuvo lugar un año antes, fue uno de los acontecimientos más importantes para la [integración europea](#) y para la posterior [libertad de circulación](#).
 - Ultranazionalismoen goraldia
 - Gerra hotzaren amaiera
 - Nazioarteko ordena berria
- Barnekoak
 - Merkatu bakarra sortzeko lotura politiko-instituzionala, ekonomikoa eta monetarioa lortzea.

. **Europar Batasunaren Itunaren (EBI) ezaugarriak:** ← [Maastrichteko ituna](#)

. Hiru zutabeetan oinarrituta zegoen:

- Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE)
- Atzerriari eta Segurtasunari buruzko Politika Bateratua (ASPB)
- Justizia eta Herrizaingo Gaietarako Lankidetzeta

. Helburuak eta mugak honako hauek izan ziren:

- Aurrerapen ekonomiko eta sozial orekatu eta jasagarria bultzatzea
- Nazioarteko mailan EBren nortasuna sendotzea
- Justizia eta Herrizaingo Gaietarako Lankidetzaren garatzea

. Berrespenerako arazoak

- Europar Batasunaren Ituna 1993. urtera arte ez zen abian jarri.

. Bi printzipio berrik oinarritzen zuten:

- Subsidiarotasunean → [Tendencia favorable a una participación del Estado en apoyo de las actividades privadas o comunitarias.](#)
- Herriartasunean

. **Lisboako Ituneraino**

*** Batasun politiko eta monetarioa lortzeko bide zaila (1993-2007)**

EBI 1993ko urtarrilean indarrean sartzearekin (1992an Maastrichteko hiri nederlandarrean sinatu zen) "Europar Batasuna" sortu zen, Europako Erkidegoa zena ordezkatu zuena. Merkatu bakarra ere ezarri zen eta bere lau askatasunak egia bihurtu ziren: salgai-zirkulazio librea, zerbitzuak, pertsonak eta kapitalak.

. **Laugarren zabalkuntza** → 1995ko urtarrilaren 1ean Austria, Finlandia eta Suezia batu ziren Europar Batasunera. Horrela Batasunak 15 kide bildu zituen, eta "*La Europa de los quince*"-tzat egin zen ezaguna.

. **2000 Agendaren onarpena**

Europako Batzordeak txosten bat aurkeztu zuen *2000 Agenda* izenburuarekin, Europar Batasunak hurrengo urteetan landu beharreko gai nagusiak bilduta. Hala ere, ez zuen Diru Batasuna kontuan hartzen (europaren eraikuntzarako gai nagusia).

Hainbat gai lantzen ditu:

- Zabalkunde geografikoa
- EBren finantza perspektibak 2000-2005 aldirako
- Egitura eta Kohesio Funtzak berrikustea
- Nekazaritza Politika eta beste politika bateratu batzuen erreforma

Ondorioa: Negoziazioen azken emaitzak Europa handitua erakusten du. [Baina gutxiago gastatzeko asmoa zuten, eta horrek herrialde behartsuenei kalte egingo zien.](#)

. **ECU-tik (European Currency Unit = Unitate Monetario Europarra) eurora.**

Ekonomia Diru Batasunaren prozesua Europar Batasunaren Ituna sinatu ondoren hasi zen, eta € moneta abian jartzea izan zen helburua.

Helburua betetzeko prozesuak hiru aldi izan zituen:

1. Konbergentzia programa : aurrekontu orekatua
 - Gobernuen finantzaketak

- Zor publikoa ezin zen BPGdren % 60 baino handiagoa izan
- Administrazio publikoen aurrekontu-defizita ezin zen BPGdren % 3 baino handiagoa izan urte-bukaeraren aurrekoan
- interes-tasa eta truke tasa erabiltzen hasi ziren.

Hauek guztiak estatuen diruen artean parekotasun finkoa ezartzeko egin ziren

2. Europako Banku Zentrala sortzea
3. 1999ko urriaren 1ean moneta bakarraren bidea.
 - Tarte horretan euro erreferentzia bihurtu zen beste monetekiko.
 - Banku Zentralak agindu zuen herrialdeek konbergentziako irizpideak betetzeko, moneta bakarrean egoteko.

Azkenean 2002ko urtarrilaren 1ean 11 estatuk hartu zuten euroa, eta egun 19 dira.

. Europako Hitzarmenaren Bilakaera

*** Amsterdam, Niza, Lisboa eta Europako Konstituzioko huts egindako saioa**

- Amsterdam:

Amsterdameko ituna Europar Batasuneko ituna erreformatzeko testua izan zen, 1997ko urriaren 2an Amsterdamen sinatua. 1999ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen.

Amsterdameko itunaren helburu garrantzitsuenak hauek izan ziren: herritartasuna eta banakoen eskubideen garrantzia azpimarratzea, Europako Parlamentuaren eskumenak handitu eta demokrazia indartzea, lan jarduerari buruzko politika bateratua sortzea, askatasun, segurtasun eta justizia esparruetan elkarlana bultzatzea.

- Niza:

Nizako Ituna Europar Batasuneko estatu eta gobernuburuek izenpetu zuten 2001eko otsailaren 26an eta 2003ko otsailaren 1ean indarrean sartu zen. Erromako eta Maastrichteko itunak erreformatu zituen, Europar Batasunaren ekialderako zabalkundea errazteko.

Itun hau abiarazteko arazo garrantzitsuenak 2001eko ekainean Irlandan egindako erreferendumean jasotako ezezkia izan zen. 2002ko urriaren bigarren erreferendum bat egin zen eta orduan baiezkoak irabazi zuten.

EDUKIA → EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

- Konstituzio saiakeraren porrota

Europarentzat Konstituzio bat eratzen duen Ituna, 2004ko urriaren 29an sinatu zuten EBko estatu-partaideen gobernuek. Itunaren helburua, 25 herrialdeek batera lan egitea

eta demokrazian dena erabakitzea da. Konstituzio honek eraginkorra, gardena eta demokratikoa izan behar zuen. Horrexegatik lehen zeuden itunen (Parisko Ituna eta Erromako itunetatik hasita eta Nizako Itunaraino) ordez Europarentzat konstituzio bat ezartzen zuen ituna jarri zuten.



Frantziako eta Herbehereko hiritarrek ezetza eman zioten ituna indarrean jartzeari, hortaz, porrot bat izan zen.

- **Lisboako Ituna**

Lisboako Ituna 2007ko abenduaren 13an onartutako nazioarteko akordioa da. Akordio honen helburua Europar Batasunaren funtzionamendua egokitzea da, 27 herrialderen arteko batasun politiko eta ekonomikoa dinamizatzeko.

- Egitura bikoitza du:
 - Europar Batasunaren Ituna (55 artikulua) EB uzteko gaitasuna
 - Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Ituna (358 artikulua)
- Erakundeak berritzen ditu eta EBeko erabaki hartze prozesua hobetzen du:
 - Europako Parlamentuko, Batzordearen konposizioari, buruzko arauak aldatzen dira
 - Erabaki-hartze prozesuaren erreforma ekartzen du Batzordearen barne.
 - Kualifikatutako gehiengoaren definizio berria erabakien bozketarako ezartzen da.
 - Bi funtzio berri sortzen dira EBeko egitura instituzionalean
 - Europako Batzordearen Lehendakaria
 - Kanpo-Arazoetarako eta Segurtasun-Politikako Goi-Ordezkaria.
 - Lankidetzaren indartua printzipioa zabaltzen da
- EBeko dimentsio demokratikoa indartzen du:
 - Herritar ekimena egiteko aukera ematen du, herritarrek Europako eraikuntzan modu aktiboagoan parte hartzeko xedez.
- EBeko barneko politikak berritzen ditu
 - Mugakokontrola, asiloa eta immigrazioa
 - Gai zibileko epailearen lankidetzaren indartzea
 - Gai penaleko epailearen lankidetzaren indartzea
- EBeko kanpo-politika indartzen du
 - Hitzarmen osagarriak osatuta daude segurtasun-politikan aritutako sail batez eta defentsa komunaz. Epe luzearako Europako defentsa-politika komuna ezartzea aurrez ikusten da.

Europar Batasuneko erakundeak



BIBLIOGRAFIA

- . Europar Batasuna → https://europa.eu/european-union/about-eu/history_es
- . Tratado de Luxemburgo → <https://www.lacrisisdelahistoria.com/compromiso-de-luxemburgo/>
- . Zabalkundeak → https://es.wikipedia.org/wiki/Historia_de_la_ampliaci%C3%B3n_de_la_Uni%C3%B3n_Europea#Primera_ampliaci%C3%B3n_en_1973:_Irlanda,_Reino Unido_y_Dinamarca
- . Historia de la Unión Europea → <http://www.historiasiglo20.org/europa/index.htm>